

BALOREZKO PROPOSAMENA

Txope-Tex-arekin akatsak berehala zuzendu ditzakezu, **zuzentzaile bat bilatu beharrik gabe**, badakigulako zure denborak ezinbesteko garrantzia duela. Idaztea eta borratzea ez da inoiz hain erraza izan gaurdaino. Izan ere, produktu berdinean **goi-mailako** boligrafo bat daukazu, hain zuzen ere, 10km idatzi ditzakeen tintarekin, bataz bestekoaren oso gainetik. Era berean, kalitate handiko tipex bat eskuratuko duzu akats bakar batek ere ez geldiarazteko. Onura ugari ditu, kargatu behar dituzun gauzak murrizten dira, ikasle edo langileentzat aproposa dena. Bestalde, boligrafoa edo tipexa galtzeko aukera gutxiago daude, dena batera baitago.



Gure produktuaren balio esanguratsuen argi eta garbi nobedadea dela esango genuke. Merkatuan ez dago horrelako produktu **bereizgarri** eta ingeniosorik, hau da, TxopeTex da mundu-mailan produktu hau ekoizten duen enpresa bakarra. Zihur gaude eskola guztietan arrakastatsua izango dela, zeren eta gazteen artean gauza berriak oso errex saltzen dira, borratu daitezken boligrafoen kasua bezala. Gure produktua ez da atzean geratuko. Umeen artean **estatus** maila altu bat emanten du. Noski produktuaren diseinua eta produktua bera, patentatua dugu, orduan ezingo dute lehiakideek ekoiztu. Bakarra denez kontu handia izan behar dugu ideia besteekin partekatzearekin. Aipatu behar dugu ere, **modelo ezberdin** asko aterako ditugula merkatura, kolore ezberdinetakoa, kolore bat baino gehiago, tipex haundiagoak, txikiagoak...

Laburbilduz, lana asko errazten du ikasle batek beharrezkoak dituen **bi** gauzak elkartzen dituelako. Aukera dago ere, boligrafoa eta tipexa separatzeko tipexa norbaiti utzi behar badiozu, adibidez.

